

Taldearen harpidetza garbiak **1.529 milioi** eurokoak izan dira eta, beraz, rankineko bostgarren postuan kokatzen da, **17.757 milioi** euroko ondarea kudeatuta

Kutxabank inbertsio fondoan harpidetzen bolumenean, ondarean hazkundera eta errentagarritasunean merkatuko lider izan da

- **Kutxabank Gestioneak ondarea % 11,25 hazita amaitu du urtea, eta kudeatutako euro bakoitzeko % 3ko errentagarritasuna lortuta, 2019an bezala lehen postuan**
- **Taldeak % 6,46ra arte hazi du inbertsio fondoan merkatu-kuota**
- **Delegatutako zorren kudeaketa Kutxabanken bezeroek inbertsio fondoetan daukaten inbertsioaren % 62ra heldu da**

2021eko urtarrilaren 11n. Kutxabank Taldeak inbertsio fondoan esparruan **aparteko ekitaldia** amaitu berri du, merkatu osoan ikusi den bilakaera onena lortu baitu harpidetza garbiei, ondarearen hazkundera eta errentagarritasunari dagokienez.

Sarrera garbieran, ekitaldi osoan zehar lehen postuan kokatu da Kutxabank, eta **hamabi hilabeteetan inbertsio fondoan industriako buruan egon da.**

Oso urte zaila izan den arren, Kutxabank Gestioneak merkatuaren eta bere bezeroen konfiantza osoa jaso du, guztira **1.248 milioi** euroko harpidetza garbiak jaso baititu, kudeatutako ondare osoaren % **8,90**. Kopuru horri, **Finecok, Kutxabanken Banka Pribatuak** eskuratutako **280 milioi** euroak gehitu behar zaizkio.

Harpidetzen bolumen handiak eta errentagarritasunaren hazkundera eraginda, Kutxabank Gestioneak **ondarea % 11,25** hazi da, eta hau ere inbertsio fondoak kudeatzen dituzten artean igoera handiena izan da.

Erakusle positibo hauez guztiez gain, **kudeatutako euro bakoitzak** izan duen **errentagarritasuna** ere handiena izan da, funtsen alorreko bere antzeko zigiluen artean, **% 3koa**.

Honekin guztiarekin, **Kutxabank Taldeak**, Kutxabank Gestion eta Fineco, Kutxabanken Banka Pribatua batuta, 2020. urte osoan nabarmen handitu du bere **merkatu-kuota**, eta inbertsio fondoan alorrean **% 6,46an** kokatu da.

Beraz, funtsetan kudeatutako ondarean arabera, **bostgarren talde handiena** da, orotara **17.757 milioi** euro administratzen baititu, aktiboak kudeatzeko duen ereduari merkatuak eman dion konfiantzaren erakusle.

“Aparteko” bilakaera honen arrazoiak aztertzean, **Joseba Oruetak, Kutxabank Gestionen Kontseilari Delegatuak** adierazi du, “gure betiko kudeaketa-eredua mantendu dugu, unerik okerrenetan lasai egon gara, eta gure bezeroak konbentzitu ditugu, honela, bigarren urtez jarraian alorreko errentagarritasun onenak lortzeko. Gakoa, beste behin, zorro delegatuak izan dira, hauekin sumatzen ditugun aukera abantailatsuetan gure bezeroak kokatzea lortzen baitugu.”

Zorro delegatuak, alorreko zerbitzu fidagarriena

Kutxabanken kudeaketa delegatuko zorroak 15 urte betetzear dira, eta urteotan etengabe hazten joan dira, kudeatzen duten ondarea behin eta berriz igo baita, eta geroz eta bezero gehiagok eman baitiote konfiantza finantza Taldearen oinarriko zerbitzu honi.

Gaur egun, Kutxabank Gestioneak inbertsio fondoetan kudeatzen duen bolumen osoaren % **62**, zorroen kudeaketa diskrezionalaren bitartez egiten da.

Formularen oinarrian, bezeroak bere aurrezkiak era profesionalean eta gertutasunez kudeatzeko Kutxabanki ematen dion eskumena dago, epe luzean zentzuzko errentagarritasuna lortzeko helburuarekin, inbertsio-zorro malgu eta dibertsifikatu baten bitartez.

2020. urtea amaitzean, Kutxabank Gestioneak **7.600 milioi** euroko saldoa zuen kudeatutako zorroetan, ekitaldian zehar bolumen osoa **800 milioi** eurotan hazi, eta **8.000 bezero berri** erakarri ostean.